# Balantzea 2022





EHLABE



# B datuen alantzea

# 2022

EHLABE

2022ko balantzearen hurrengo orrialdeetan, Euskadin desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunari buruzko datu garrantzitsuenen laburpena eskaintzen dugu. 2021etik egiten ari garen bezala, 2022an ere **EHLABE**ko entitate guztiek euskal gizarteari ematen dioten balio soziala neurtzen eta kuantifikatzen jarraitu dugu.

Joan den urtean, pandemiaren osteko ziurgabetasunak markatutako ekitaldian, **EHLABE**ko kide diren gizarte-ekimeneko entitateek lan handia egin dute, administrazio publiko guztiekin eta gainerako eragile erreferenteekin lankidetzan, eta lan hori desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu berrien sorreran islatu da, pandemiaren aurreko enplegu-zifrak gaindituta. Sortutako enplegu guztiaren artean, laguntza-premia handienak dituzten pertsonentzat sortutakoa nabarmentzen dugu, bai entitateetan bertan, bai ingurune publiko eta pribatuetan.

Gainera, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera, **EHLABE**k eta bere entitateek erreferentzia izaten jarraitzen dute desgaitasuna duten pertsonentzako enplegagarritasun-zerbitzu espezializatuen kudeaketan, batez ere laguntza-premia handienak dituzten pertsonentzat. Horrela, gizarteratzeko eta laneratzeko Euskal Eredua deiturikoa erreferentzia da oraindik ere desgaitasunaren eta enpleguaren sektorean, bai Estatu mailan, bai Europa mailan.

Datorren urterako erronka nagusia jarduera errentagarriak eta iraunkorrak sortzea izango da, Euskadin desgaitasuna duten pertsonentzat lan-aukera ireki, inklusibo eta irisgarri berriak sortzen jarraitzeko.



**EHLABE desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratu eta laneratzea sustatzen duten Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Berezien euskal elkartea da.**

**EHLABEko kide dira Euskadiko hiru lurralde historikoetako hamalau erakunde:**

EHLABE elkarte dinamikoa da eta kudeaketaren elementu estrategiko gisa hainbat erakunderekin aliantza-harremana gehitzen du. Erakunde hauek izaera publiko zein pribatukoak dira eta autonomia, estatu eta Europa mailakoak.

1987an eratu zenetik, EHLABEk elkarrizketa-ekintzak sustatzen eta garatzen ditu erakundeekin eta gizarte-eragileekin, erakunde kideen elkar-lankidetzatik abiatuta eta, interes orokor bezala, desgaitasunak dituzten pertsonen enplegagarritasunaren hobekuntza partekatuta.



## BIZKAIA

- Apnabi
- Bidaideak
- Bizgorre
- Rafaela María
- Eragintza
- Lantegi Batuak
- Gallarreta
- Ranzari
- Usoa



## GIPUZKOA

- Gureak
- Katea Legaia
- Sutargi



## ARABA

- Indesa
- Raep

# Gizarteratu eta laneratzeko euskal eredua

Desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko euskal eredua erreferente bihurtu da estatu eta Europa mailan, bai desgaitasunen bat duten pertsonen laneratzean, bai Ekonomia Sozialaren sektorean. Arrakastaren arrazoi nagusia da eredu honek pertsonaren gaitasunak eta berauen garapena xedetzat hartzen dituela, ingurune profesional eta lehiakorretan lan-aukerak sortuz. Horretaz gain, lan ibilbide osoa pertsonak gizarteratzeko ikuspegitik egiten da, laguntza-behar handienak dituzten pertsonak lehenetsiz.

Ereduaren ezaugarri batzuk hauek dira:

- **Lanaren balioa, gizarteratzeko bitarteko gisa.**
- **Kudeaketa profesionala eta lehiakorra.**
- **Iraunkortasuna eta jardueren dibertsifikazioa.**
- **Lana sarean.**
- **Lankidetza publiko-pribatua, non Eusko Jaurlaritza eta LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua gailentzen diren.**




INGURUNE PROFESIONALA ETA LEHIAKORRA
ZERBITZU OKUPAZIONALA
• Pertsona xede nagusitzat duen plangintza
• Laguntzak
• Bizi-kalitatea
• Trebakuntza
ENPLEGU ZENTRO BEREZIA
• Trebakuntza
• Irisgarritasuna
• Egokitzapenak
• Gizarteratzea xede duena
ORIENTAZIOA
PRESTAKUNTZA
ENPLEGU ARRUNTA
• Gizarteratzea xede duena
• Egokitua
• Erkidegoan parte hartzea
DIBERTSIFIKAZIOA
IRAUNKORTASUNA

# Balio sozial erantsia

EHLABEk eta bere erakundeek gizarte-kontabilitatearen bidez desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasuna hobetzera bideratutako ekintzek eta enpresa-jarduerek sortzen duten Balio Sozial Erantsia neurtzen jarraitzen dugu.




**794** milioi euro

**7 €** sortzen dituzte jasotako diru-laguntza publiko bakoitzeko

## Nori sortzen diogu balioa?

**GIZARTEA**

**ENPRESA-SAREA**
Erosketen trakzio-efektuak eta lehiakortasunaren hobekuntza bidez.

**ADMINISTRAZIO PUBLIKOA**
Aurrezkia kotizazio gabeko pentsioetan, osasun-prestazioetan, enpleguaren sustapenean edo prestakuntzan.

**LANGILEAK**
Soldatak, lantokiak bizilekura hurbilduz, eskainitako enplegagarritasun-zerbitzua eta kontziliazioa.

**FAMILIAK**
Liberatutako zainketa-orduetan, mantenuan edo gastu medikoetan, familia-ekonomiari diru-sarrerak gehitzeaz gain.

Sortzen dugu balioa

› **EZBetako enpleguaren kopuru totala:**

| 5.390 ♂ gizon | 2.981 ♀ emakume | 8.371 pertsona |
|---|---|---|

**Fakturazioa**

**338 Milioi €**

› **EZBn sortutako enplegu garbia desgaitasuna duten pertsonentzat:**

| 123 ♂ gizon | 95 ♀ emakume | 218 pertsona |
|---|---|---|

› **EZBn sortutako enplegu garbia laguntza-premia handiagoak dituzten pertsonentzat:**

| 92 ♂ gizon | 60 ♀ emakume | 152 pertsona |
|---|---|---|

› **Enplegu Arruntean sortutako enplegu garbia:**

**166** pertsona: **112** gizon, **54** emakume → **142** laguntza-premia handiagoak dituzten pertsonak dira: **94** gizon, **48** emakume






# Enplegagarritasunari laguntza

Pertsona eta haren gaitasun guztiak gure gizarteratze ereduaren erdigunean daude. Bere enplegagarritasuna eta gizarteratzea eta laneratzea sustatu eta hobetze aldera egiten dugu lan.

Enplegagarritasun programek babesa eta laguntza eskaintzen dute pertsonen garapen profesionalaren arloan, laguntza-behar handienak dituzten pertsona desgaituak lehenetsiz eta lana burutzeko beharrezkoak diren lan- eta gizarte- gaitasunen eskuratzea eta garapena lagunduz.

**4.125** orientatu diren pertsonak

♂ **2.536** gizon

♀ **1.589** emakume

**+%35ak** enplegu bat lortu du



Bitartekaritzan artatutako pertsonak **9.567**

**5.837** gizon ♂

**3.730** emkume ♀

## Prestatutako pertsonak

| 307 PERTSONA | 154 PERTSONA | 112 PERTSONA | 54 PERTSONA |
|---|---|---|---|
| 204 ♂ 103 ♀ | 97 ♂ 57 ♀ | 65 ♂ 47 ♀ | 29 ♂ 25 ♀ |
| Aldez aurreko prestakuntzan | Prestakuntza Dualean | Profesionaltasun ziurtagiria dute | Oinarrizko lanbide-heziketa |

**23 Milioi €** balioa, desgaitasuna duten pertsonei eta enpresei enplegagarritasun-zerbitzuen bidez.




# Zerbitzu okupazionala

Zerbitzu Okupazionala norberaren autonomia eta autodeterminazioa sustatuz eta gizarte mailan aintzatespen eta balorazio handiagoa aldeztuz, gizarte eta lan arloetako garapena bideratzen duten jarduerak burutzen dituen zerbitzu soziala da.

**2.044**
PERTSONA

**Zerbitzu Okupazionalean**

♂ **1.347** gizon

♀ **697** emakume

**120**
PERTSONA

**Zerbitzu Okupazionaletik enplegurako iraganbideak**

♂ **82** gizon

♀ **38** emakume

## EHLABEko erakundeetako Zerbitzu Okupazionalean plazen banaketa, desgaitasun motaren arabera

| | Gizon | Emakume |
|---|---|---|
| Adimen desgaitasuna | 990 | 574 |
| Gaixotasun mentala | 322 | 108 |
| Desgaitasun fisikoa | 28 | 11 |
| Zentzumen desgaitasuna | 7 | 4 |
| **GUZTIRA** | **1.347** | **697** |

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



# Enplegu zentro berezia

Enplegu Zentro Bereziak merkatuan lan produktiboa egiten duten enpresak dira, eta enplegu bat eskaintzea dute helburu, laguntza soziolaboraleko zerbitzuak eskaintzearekin batera.

## › EHLABE Enplegu Zentro Berezietan enpleguaren banaketa, desgaitasunaren arabera:



*Desgaitasun fisikoa*
**%37**
3.121
PERTSONA

*Adimen desgaitasuna*
**%29**
2.394
PERTSONA

*Gaixotasun mentala*
**%26**
2.176
PERTSONA

*Zentzumen desgaitasuna*
**%8**
680
PERTSONA

## EHLABEko EZBetan desgaitasuna duten pertsonen bilakaera




## Laguntza-behar handienak dituzten pertsona desgaituen %, EZBetan desgaitasuna duten pertsonen kopuru totaletik




## ZBetan egonkortasun tasa




## EZBetan desgaitasuna duten pertsonen kopurua, adinaren arabera




**90 Milioi €** desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei sortutako balioa.



# Inguruko enpresetara igarotzea

EHLABEko kide diren erakundeek lan-merkatu arruntean enplegua bultzatzen dute Enplegu Lagundua deituriko metodologiaren bitartez, pertsona eta lanpostua bera erdigunean duten laguntzak eskaintzen dituena, lanpostua atzitu, lanpostu horri eutsi eta hura sustatze aldera.

## EZBetatik Enplegu Arruntera igarobidea

**35** PERTSONA

GIZON 25 ♂ — EMAKUME 10 ♀

## Enplegu Arruntera zuzeneko igarobideak

**131** PERTSONA

GIZON 87 ♂ — EMAKUME 44 ♀

## Enplegu berria desgaitasunaren arabera

**166** PERTSONA

**142** *pertsonek laguntza-premia handiagoak dituzte*

94 ♂ 48 ♀

%64 — *Gaixotasun mentala*: **106** PERTSONA — 74 ♂, 32 ♀

%14 — *Adimen desgaitasuna*: **24** PERTSONA — 16 ♂, 8 ♀

%16 — *Desgaitasun fisikoa*: **26** PERTSONA — 16 ♂, 10 ♀

%6 — *Zentzumen desgaitasuna*: **10** PERTSONA — 6 ♂, 4 ♀



# Ekonomia soziala

EHLABEko Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Bereziak ingurune profesional eta lehiakorretan osorik garatzen diren enpresak dira. Enpresa hauen ezaugarriak dira:

› *Enpresa-kudeaketa lehiakorra.*

› *Dibertsifikazioa sektoreka.*

› *Presentzia sektore aitzindarietan.*

› *Iraunkortasuna.*

## EZBetan desgaitasuna duten pertsonen banaketa, sektorearen arabera

Besteak 90

Industria 4.859 | Zerbitzuak 3.424

## Fakturazioa industria eta zerbitzuak bereizita

Zerbitzuak 100 Milioi € | Industria 238 Milioi €

GUZTIRA 338 Milioi €

*Administrazio Publikoak EHLABEko erakundeei emandako euro bakoitzeko hauek* ***1,7 €*** *itzultzen dituzte.*

***395 Milioi €***
*bezeroei eta hornitzaileei balioa ematen dieten enpresa-ekimenen bidez.*




raep




# AukerAbility

AukerAbility proiektuan EHLABEko 4 erakundek hartzen dute parte eta bere helburua da, alde batetik, pertsonen garapena hobetzea eta, bestetik, desgaitasuna duten pertsonentzat enplegua sortzera bideratutako jarduera berriak bilatzea.

Praktika berritzaileak erabiliz eta gaitasun indibidualetatik abiatuta, AukerAbilityn burututako ekintzak persona bakoitzaren beharretara moldatzen dira bere laneratzeko ibilbidearen fase guztietan zehar.

Proiektu honek desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea eraldatu eta bide honetan aurrerapausoak egin nahi ditu esparru desberdinetan aritzen diren hainbat proiektu berritzailek bultzatzen duten aldaketari esker. Esparru horien artean daude merkatu berrien identifikatzea, lanpostuan heziketa praktikoa, zahartze aktiboa, lanpostu eta prozesuen egokitzapena, ingurune arruntetan praktikak, etab.

**2022** ean

**137** PERTSONA

**%58 ♂**

**%42 ♀**

***pertsonek hartu zuten parte proiektu honen ekintzetan.***

Hauetatik, 5 gizon lana lortu zuten, 14 gizon eta 4 emakumek prestaketa ziurtagiria lortu zuten eta 53 gizon eta 32 emakumek lanpostua mantendu zuten.

Europako Gizarte Funtsak AukerAbility Proiektua laguntzen du; izan ere, horrek proiektuaren % 50 diruz laguntzen du, EAErako 2014-2020 Programa Operatiboaren bidez. Proiektuak Gipuzkoako eta Bizkaiako Foru Aldundien laguntza ere jasotzen du.

EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO

Europako Gizarte Funtsak
zure etorkizunean inbertitzen du
El Fondo Social Europeo
invierte en tu futuro

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ORAIN
GIPUZKOA

# Erakundeak

**14**
**ERAKUNDE**

14 dira EHLABEko kide diren erakundeak Euskadiko hiru lurralde historikoetan:






EHLABE
Inclusión sociolaboral de personas con discapacidad
Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea

erakundeak



## ARABA

### INDESA
**www.indesa2010.eus**
indesa2010sl@araba.eus
Domingo Beltrán, 2 bajo
VITORIA-GASTEIZ
945 233 653

### RAEP
**www.asafes.org**
raep@asafes.org
Portal de Gamarra, 36 - pabellón 20
VITORIA-GASTEIZ
945 771 501

## BIZKAIA

### APNABI
**www.apnabi.eus**
kaixo@entremanos.eus
Plaza Aita Patxi, 8
BILBO
944 754 417

### RAFAELA MARÍA
**www.centrorafaelamaria.es**
centro@centrorafaelamaria.es
Calle Grupo Bidegain, 13
BILBO
944 278 388

### GALLARRETA
**www.gallarreta.net**
gallarreta@gallarreta.net
Barrio Abanto, 12
ABANTO-ZIERBENA
946 362 478

### BIDAIDEAK
**www.bidaideak.org**
bidaideak@sarenet.es
Lehendakari Agirre, 5
BILBO
944 766 200

### ERAGINTZA
**www.eragintzafundazioa.eus**
info@eragintzafundazioa.eus
Calle Iruña, 17
BILBO
944 231 693

### RANZARI
ranzari@ranzari.com
Barrio Kabiezes, s/n
SANTURTZI
944 610 466

### BIZGORRE
**www.bizgorre.com**
bizgorre@bizgorre.com
Calle Aritz Bidea, 63
MUNGIA
946 743 713

### LANTEGI BATUAK
**www.lantegibatuak.eus**
info@lantegibatuak.eus
Txorierri Etorbidea, 12
LOIU
944 535 999

### USOA
**www.usoa.es**
usoa@usoa.es
Zumalakarregi, 10
BARAKALDO
944 900 211

## GIPUZKOA

### GUREAK
**www.gureak.com**
info@gureak.com
Illarra bidea, 4
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
943 000 800

### KATEALEGAIA
**www.grupokl.com**
info@grupokl.com
Epele Bailara, 35
HERNANI
943 521 834

### SUTARGI
**www.sutargi.org**
sutargi@sutargi.org
Pol. Ind. Beotibar, 12
BELAUNTZA
943 675 369



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES